



### *VIRGINIA GÓMEZ SIERRA (Kidea)*

---

Zuzenbidean lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean (1998); *Maîtrise en Droit Publique, Université de Montpellier* (1997); Masterra Erakunde eta Politika Komunitarioetan, Valentziako Unibertsitate Politeknikoan (1999); Hirigintzan diplomaduna (2005) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP). Zuzendarientzako Lidergo Programa *Deusto Business Schoolen* (2014).

Hirigintzaren, ingurumenaren eta iraunkortasunaren alorrean hasi zuen ibilbide profesionala, arkitektura- eta hirigintza-kabineteetan lan egin baitzuen. Gaur egun, bi erakundetan lan egiten du: Deusto Business School eta MET Community, ekonomia eta giza eskubideak ardatz nagusi dituela. Deustun, Proiektuen Transferentzia Unitatearen koordinatzailea da BBK Behatoki ekonomikoa eta soziala eta *Bilbao Bizkaia Hub Financiero* proiektuetan, eta, MET Communityn, EAEko Zuzendari gisa. Komunikabideen (Radio Euskadi...) eta Sare Sozialen laguntzaile gisa jarduten du maiz, berdintasun, ekonomia eta enpresaren alorrean edukiak azalduz.

Halaber, *Doce Miradas* kolektiboko kidea da, berdintasunaren gaiarekin duen konpromisoaren erakusle.